

## BESTELAKO XEDAPENAK

### HEZKUNTZA SAILA

## 392

*EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 14koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, zeinaren bitartez argitaratzen baitira 2018ko apirilaren 18ko Aginduaren babespean emandako diru-laguntzak, jendeak horren berri izan dezan.*

2018ko maiatzaren 7an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2018ko apirilaren 18ko Agindua, Hezkuntzako sailburuarena. Horren bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten zaie Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2018-2019 ikasturtean, hizkuntza-proiektuaren berrikuntza-proiektuei lotuta.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariak ebatzi zuen deialdia, eta interesdunei banan-banan jakinarazi zaie ebazpena; beraz, deialdi-aginduaren 14.2 artikulua araberan, argitaratu egin behar dira emandako laguntzak, jendeak horren berri izan dezan.

Horregatik, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea, zabalkunde osoa izan dezan, Hezkuntzako sailburuaren 2018ko apirilaren 18an Aginduaren bidez deitutako laguntza onuradunen zerrenda (ikus eranskina). Agindu horren bidez, diru-laguntzetarako deialdia egiten zaie Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko itunpeko ikastetxe pribatuekin harreman estatutarioak edo erregelamenduzkoak dituzten federazio eta elkarteei, prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2018-2019 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (2018ko maiatzaren 7ko EHAA, 86. zk.).

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 14a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,  
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

2019ko urtarrilaren 24a, osteguna

## ERANSKINA

## DIRU-LAGUNTZEN ESLEIPENA

Elkarte/Federazio Eskatzailea	Esleitutako diru-laguntza
Kristau Eskola	841.952,37
Euskal Herriko Ikastolak	353.179,51
Ikasgiltza	43.530,00
Eusko Ikastola Batza	80.965,53
AICE	12.372,59